

HITZ BITAN

AZPIEGITURAK. Araudi berriak eskatzen duela dio

Hondarribiko aireportua egokitzeko lanak egin behar direla berretsi du Madrilek

Agentziak | MADRIL

Hondarribiko aireporatuan berritze lanak egin beharko direla berretsi zuen atzo Espainiako Gobernuako Sustapen ministro Francisco Alvarez Cascosek. Aldaketa horiek ezinbestekoak direla gaineratu zuen, eta 100 bidaiaritik gora eramaten dituzten hegazkinak ezingo direla Hondarribitik irten, aldaketak egiten ez diren bitartean.


Cascosek esandakoaren arabera, Abiazio Zibileko Nazioarteko Erakundeak (OACI) onartutako araudi berria dago aldaketak egin behar izatearen atzean; eta egokitzapena, gainera, araudia indarrean sartu aurretik amaitu behar da.

Hondarribiko aireportuak 1.744 metroko pista bat du he-

gazkinak atera eta lur hartu dezaten; araudi berriarekin, luzera hori 1.544 metrora murriztuko da. Luzera horretako pistetan, baina, 100 bidaiari baino gehiagoko hegazkinak ez dute distantzia nahikoa aireratzeko.

«Horrek esan nahi du egun Madril-Donostia ibilbidea egiten duten MD88 hegazkinak ezingo dutela jarraitu lanean. Hori dela-eta, aireportuaren gaineko erabakiak guztionak dira», esan zuen Cascosek.

Sustapen ministroak Espainiako Senatuan egin zituen adierazpen horiek, EAJko Elena Etxegoien diputatuak egin-dako galderari erantzunez. Etxegoienek aireportuko ingurunea kontuan hartzea eskatu zuen; Bidasoa ibaia eta hirigunea aipatuz, besteak beste.



LANDER FERNANDEZ ARROIABE / ARGAZKI PRESS

Iruñeko elkarretaratzea UPNko egoitzaren aurrean izan zen.

EUSKARA

EHEk kontzentrazioak egin ditu Donostian eta Iruñean

Euskal Herrian Euskaraz taldeak kontzentrazio bana egin zuen atzo iluntzean Donostian eta Iruñean, «euskaldunok hainbat arlotan jasaten ditugun hizkuntz eskubideen zapalkuntza salatze-ko». Kontzentrazioa PPren egoitzaren aurrean

izan zen Donostian, PP euskararen etsaia zioen pankarta batekin, eta Iruñean Udaletxeko Plazan elkartu ziren EHEko kideak. Udaletxea guztion etsaia idatzirik zeraman pankarta zabaldu zuten.



LANDER FERNANDEZ ARROIABE / ARGAZKI PRESS

HEZKUNTZA

San Frantziskoko haur eta gurasoak, manifestazioan

Iruñeko San Frantzisko ikastetxeko haur eta gurasoak manifestazioan joan ziren atzo Iruñeko udaletxera eta Hezkuntza Departamentura, Gurasoen Elkartek ikastetxeaz egin duen bideoa eraman eta eraikin berean gelditu nahi dutela aldarrikatzeko. Nafarroako Gobernuak Alde Zaharreko ikastetxe publikoa bota nahi du bertan Liburutegi Nagusia eraikitzeko, eta Udaren oniritzia du horretarako. Ikastetxeko Eskola Kontseiluak uste du egoitza berria ez dela egokia.

ERASOA

Gazte bat atxilotu dute Tuteran, dantzaleku bateko atezainari eraso egin eta mehatxatzeaz akusatuta

Nafarroako Foruzaingoak gazte bat atxilotu zuen igande goizaldean, Tuteran, herriko dantzalekuko atezain bati eraso egiteaz eta mehatxatzeaz akusatuta. Bestalde, atxilotu nahi izan zuten polizia kontrako atentatua, mehatxuak eta aurre egin izana ere leporatzen diote. Gaztea, 23 urteko S.B., Tuteran bizi da, eta jatorriz marokoarra da. Foruzaintzatik adierazitakoaren arabera, dantzalekuko zaindarien ez zioten atxilotuari sartzen utzi, eta hark labana bat atera zuen. Atezain bat gazteari labana kentzen saiatu zela dio Foruzaingoak, eta zauriak pairatu zituela esku batean.

DROGA

Bi heroina harrapaketa egin dituzte Hendaiako mugan

Hendaiako mugazainek bi droga harrapaketa egin dituzte berriki eta bietan heroina atzeman. Lehen kasua joan den astean gertatu zen eta bigarrena atzo bertan. Droga Herbeheretatik Espainara zihoan autobusetan atzeman dute bi kasuetan. Droga zeramaten atxilotuak Herbeheretako nazionalitatea dute.

Ustezko bi trafikatzailen kartzelatu dituzte Bizkaian

Bilbo eta Sestaoko udaltzaingoak 3.500 gramo kokaina, 6.500 gramo haxis, hamar dosi LSD, faltsututako arropak eta 23.000 euro atzeman zizkien bilbotar bati eta sestaotar bati pasa den ostiral eta larunbatean, hurrenez hurren. Epailearen aurretik pasa ostean atxilotuak espetxeratzeko agindua eman du epaileak.

HOMOSEXUALITATEA

Gay eta lesbianek bikoteen legea ona dela uste dute

Eusko Legebiltzarreko gai ekonomiko eta sozialen garapenerako komisia Eusko Jaurlaritzak izatezko bikoteei buruz eginiko egitasmoa ari da aztertzen. Bertan, Imanol Alvarezek hitz egin zuen atzo Eham eta Gaytasuna erakundearen izenean; bere iritziz, Jaurlaritzak eginiko testua ona da, sexu bereko bikoteek jasaten dituzten bazterketak saihestu nahi baititu administrazioak.



JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

GAZTETXEA

Gasteizko Gazte Asanbladak dio etxearen etorkizuna etziko manifestazioaren menpe dela hein handi batean

Gasteizko Gazte Asanbladak «erabakigarritzat» jo du etzi arratsalderako (19:00etan, Iparralde gizarte etxetik hasita) deituta-ko manifestazioa. «Gaztetxearen etorkizuna jokoan dago eta hori manifestazioaren menpe egongo da hein handi batean», esan zuten atzo Gazte Asanbladako kideek. Gazteek mobilizazioa iragartzeko parodiaren moduko prentsurrekoa egin dute Andra Mari Zuriaren plazan, non urte hasieran famatu bihurtu zituzten ipotzak agertu baitziren. Etziko manifestazioa kanpaina oso baten «aldaketa-gunea» izango dela ziurtatu dute.

JUSTIZIA

Eibarko Justizia Jauregiaren inaugurazioarekin, Eusko Jaurlaritzak amaitu du eraikinen berritzerako plana

Justizia alorreko agintariek atzo inauguratu zuten Eibarko (Gipuzkoa) Justizia Jauregi berria. Horrekin, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak amaitutzat jo du orain dela hamar urte justiziako egoitzak berritzeko abiatutako plangintza. Eraikin berriak 4.931 metro koadroko eremua du, eta 5.508.000 euroko aurrekontua izan du. Justizia Jauregia armen probalekua zegoen tokian egin dute; eta Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko epaitegi bana eta Sozialeko beste bat egongo dira bertan.